

ATHLETICEKIN BAT ZOKKETAREN OINARRIAK, TERMINOAK ETA BALDINTZAK

Erakunde antolatzailea

Ulibarri Euskaltegiak (IFZ: F48199673 eta helbide soziala Gardoki 3, 1.solairua 48008 Bilbo) "Athleticekin bat" zozketa antolatu du (hemendik aurrera "zozketa") honako araudi honetan jasutzen diren termino eta baldintzetan.

Parte-hartzaileak

18 urtetik gorakoak.

Zehaztutakoa egiteak berarekin dakar oinarri hauek erabat onartzea.

Parte-hartzeko epea

2024ko martxoaren 18tik 2024ko apirilaren 10era, biak barne.

Saria

VIP sarrera bi irabazle bakar batentzat kopako finalaren osteko Villarrealen kontrako partida ikusteko, apirilaren 14an 18:30ean (ikusi Athelticen web-orria).

Parte-hartzeko dinamika

Ekintzan parte hartu ahal izateko, prozedura honi jarraitu behar zaio:

1. Jarraitu gure kontua Instagramen edo Facebooken. Bietan egin dezakezu.
2. Eman "like" argitalpenari.
3. Aipatu nor den Athleticen ereserkiaren letra "belarriz" abesten duen ezagun hori. Sare sozial bakoitzeko aukera bat duzu zozketarako. Argitalpena partekatzen baduzu, asko eskertuko dizugu!!!

Zozketa

Zozketa apirilaren 11n egingo da. Irabazlea zozketa aleatorio bidez aukeratuko da App Sorteos aplikazioa informatikoa (<https://app-sorteos.com/es>) erabilita.

Irabazlea jakinaraztea eta saria ematea

Ulibarri Euskaltegiak irabazlea www.ulibarri.eus web-orrian eta bere sare sozialetan argitaratuko du. Horrez gain, irabazleari mezu pribatua bidaliko dio emaitza jakinarazteko. Irabazleak emaitza argitaratzen denetik apirilaren 12ko ordu biak arte izango du Ulibarri Euskaltegiarekin harremanetan jartzeko saria eskuratu ahal izateko.

Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta, pertsona fisikoen babesa eta beren datu pertsonalen tratamenduaz eta datu horien zirkulazio libreaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Gardoki, 3 - 48008 - Bilbo helbidea duen Ulibarri Euskaltegia SK-k kudeatuko dituela. Datuen tratamenduaren helburua da zozketa bideratzea eta parte-hartzaileen datuak erabiltzea eta argitaratzea sustapen-helburuekin Ulibarri Euskaltegia SK-k kudeatutako web edo sare-sozialetan, interesdunak emandako onarpenarekin. Datuak epe zehatzik gabe gordeko dira, aipatutako helburua lortzeko beharrezkoak edo bereizleak diren

bitartean edo interesdunak kontrakorik adierazten ez duen bitartean. Datuak ez dizkiegu hirugarrenei helaraziko.

Erabiltzaileak onartu egiten du eta adostasuna ematen du bere datu pertsonalak argitaratzeko eta hedatzeko (izen-abizenak) sariaren irabazlea bada.

Interesdunak datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean edo bulegoa@ulibbarri.eus helbide elektronikoa NAREN edo baliakidearen fotokopia erantsita, fitxategian sartu, zuzendu, deuseztatu, tratamendua mugatu, garraiatu eta aurkaratzeko eskubideak erabil ditzake. Halaber, bere adostasuna baliogabetzeko eskubidea du. Edonola ere, emandako baimenean atzera egiteko eskubidea du, baina horrek informazioa eskuratzeko eskatu duen zerbitzua eten eta zozketan parte hartzeko eskubidea baliogabetzea ekarriko du.

Bereziki uste badu ez dagoela guztiz pozik eskubideak erabiltzean, erreklamazioa egin dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan www.avpd.euskadi.eus webgunearen bidez, edo estatuko kontrol-agintaritzaren aurrean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, k/ Jorge Juan, 6 - 28001 Madril, honako webgune honen bidez: www.aepd.es.